
KULTUR, HITZAK



Esan beharrik ere ez dago,
gure «haritza», beti «haritza»
izango dela... baina,
botanikarien artean
«Quercus pedunculata» ere
bai.

Euskal-Unibertsitatea delata, berak dakarren indarra delata, berak daraman bultzakada delata, euskera bera ere, kultur maila jaso batera igo beharrean aurkitzen da.

Batek baino gehiagok esan ere esan ohi du, euskara, herri xeheko jende ezjakinak, bere elkarrizketa arrontetan erabiltzeko bakarrik balio duela. Hori, jakina da, astokirtenkeri bat besterik ez da. Euskara, goi mailako kultur-hizkuntza guzietarako baliozgarri da, eta hortaz, goi mailako hizkuntzan erabili behar dena.

Badira jakintza batzuek, goi mailako kultur-hitz oso bereak eta oso bereziak erabiltzen dituztenak, eta jakintza horietan ikasia eta trebe ez denak, ezin uler ditzakenak.

Badirudi, jakintza horiek erabiltzen duten «argot» delako horietan, norbaitek esan zuen bezala, herri-xeheko jende ezjakinak uler ez zitzaizkieten hitzak erabili behar zirela. Jakintza horiek zekienentzat bakarrik, beren elkar-hizketarako bakarrik, gordeak baleude bezala.

Baina orain, alde batetik, jendea gero eta ikasiagoa da, eta jakintza guziak ere, gero eta zabalduagoak, aztertuagoak, edatuagoak.

Jakintzak unibersalak dira eta jakintsuak duten elburuetako bat, elkar, ezpairik gabe, ulertzea da. Baina ulertze hau, munduko hizkuntzen arteko ezberdintasunak, zaildu egiten du. Horregatik, goi mailako kulturarako, unibersala izan daiteken, nazio arteko, kultur-hizkuntza baten atzetik dabilta denok: «gauza» batek, mundu guzian «izen» bera izatea alegia.

Orain arterakoan, aritmetikako zenbakiak, musikako bostlerrokoak eta notak, kimikako sinboloak, eta abar, alde batera utzita, badirudi kimika (Lavoisier eta bere jarraitzailei esker) eta botanika (Linneo eta bere jarraitzailei esker) direla batasunerako bide hontan, aurrera gehien joan direnak.

Botanikan, adibidez, gure «haritza», gaztelarrentzat «roble» da. Eta frantziarrentzat «chêne», katalanentzat «pèrol», portugaleentzat «carvalho», italikoentzat «rovere», ingelesentzat «oak», alemanentzat «stieleiche», suekoentzat «ek», finlandiarrentzat «talvitammi», eta abar. Zuhaitz hau «betikoa» da; izen zaharrak ditu; herri bakoitzan bertakoa...

Baina, botanikan, herri guziak erabiltzen duten goi mailako kultur-hizkuntzan, «*Quercus pedunculata*» bezala ezagutzen da. Eta mundu guziko botanikalariak dakite «*Quercus pedunculata*» zer den, eta «*Quercus pedunculata*» idazten dutenean, jakin ere badakite, zertaz ari diren. Eta denak ortografi berdinaz idatziko dute, eta berdin ahozkatuko dute izen hori. Ez dago, horrela, inongo nahasketarik. Era hontan berean, landare guzien goi mailako kultur-izenak, berdin-berdinak dira mundu zaballean.

Esan beharrik ere ez dago, gure «haritza», beti «haritza» izango dela eta ez, euskara osoa «unificatu» nahian, «roblea» edo «txena», eta gutxiago oraindik «karbalhoa» «H» eta guzti. Baina, botanikalarien artean «*Quercus pedunculata*» ere bai. Eta, ez gaitzean joan «olmo arbolaren ramoetara manzanuen bila».

Eduki kontuan, bestalde, «haritz» mota asko direla («*Quercus sessiliflora*», «*Q. rubra*», «*Q. palustris*», eta abar) eta «haritza» ez diren, beste «*Quercus*» ere bai («*Quercus Toza*» = «*ame-tza*»; «*Q. ilex*» = «*abarra*», «*artia*»; «*Q. suber*» = «*artelazki*», «*tortoxa*», «*arelatza*»; eta abar). Bestalde, euskaraz, era askotara idatzi eta esaten da (beste landare gehienetan eta beste hizkuntzetan gertatzen den bezala) landare honen izena: «haritz» (e), «aretx» (BG), «aitz» (L), «araitz» (ANG), «aritz» (BS), eta abar.

Hontaz, euskararen batasunerako, arazo hontan, besteetan bezala, landare hau izendatzeko «hitz bat» behar genuke. Baina haritzen artean batabesteak bereizteko, botanikalariak jarritako izen horiek erabili behar izango ditugu.

Landare bakoitzaren izenez gain, badira botanikan beste «taxon» mailak («*Divisio*», «*Classis*», «*Ordo*», «*Familia*», eta abar) bakoitza bere atziki berezi batzuen bidez («*-phyta*», «*-phyceae*», «*-ales*», «*-aceae*» eta abar) izendatzen direnak. Baina, hemen, aldaketa txiki batzuek azaltzen dira. Hara nola, familietan, adibide bat: latineraz, ofizialki, «*Rosaceae*» dena, gure aldameneko bi hizkuntzetan «*Rosaceas*» (gaztelaraz) eta «*Rosacees*» (frantzeraz) dira. Ingeleseraz eta beste hizkuntza gehienetan, latinezko forma hartzen dute hontarako.

Guk, euskaldunok, zer forma hartu? Gaztelararen edo frantzeraren bidez datorzkigun forma horietako bat, ala edatua dagoen latin atzikiarekin osatua? Dena dela, «*International Association for Plant Taxonomy*» delakoak emandako «*International Code of Botanical Nomenclature*» araudien menpean erabili behar izango dugu.

Ez hainbeste, baina, kimikan ere berdintsu jokatzeko da. Kimikan oinarri diren elementuak (92 berezko eta beste hamar, gaur arte, artifizialki sortuak), aspaldiko izen zaharrak darabazkitez hamalau (Au, Ag, Fe, eta abar) ez beste guziak —idazkeran aldaketa gutxiekin— berdin izendatzen dira. Ezberdin diren horietako batzuek, beren jatorrizko euskal-izena ere, badute. Hara nola: «urre», «zilar», «burdina», eta abar.

Baina, besteetan (H, C, O, Sb, eta abar) zer forma hartu guk? Latinezko «*hydrogenium*», gaztelarazko «*hidrógeno*», frantzetarren «*hydrogène*», ingelesen «*hydrogen*», ala alemanak beren «*wasserstoff*» delakoa osatu zuten antzera, guk «*urgaia*» izendatu?

Eta, bestalde, «*natrium*» ala «*sodio*», edota, norbaitek euskaldunduak zion «*natir*»? «*kali*» ala «*potasio*», edota «*kali*»? Zer molde hartuko dugu guk euskaraz? Gaztelararen bidez (hegoaldeko) datorkiguna, ala frantzeraren bidez (iparraldeko) datorkiena? Hegoaldekoak gehiago gara eta, orain arte, gure liburuetan, gutxi bada ere, gaztel-formak gehiago erabiliak izan dira. Baina, askotan, beste formak unibersalagoak, munduan zehar edatuagoak eta sinboloekin bat datozenak dira. Nola aukera?...

Kimikako nomenklaturan, nazio artean onartuak izan diren atziki eta aurizki asko erabiltzen dira («*hipo-*», «*per-*», «*di-*», «*-ano*», «*-eno*», «*-ino*», eta abar). Baina, askotan, ortografi aldaketak azaltzen dira. Gaztelarazko «*sulfato mercurioso*» delakoa adibidez, frantzeraz «*sulfate mercureux*» eta ingeleseraz «*mercurous sulphate*» dira: idazkeran eta ahazkeran ezberdintasunak izanarren, ulertzeraz. Horiek, atzikiak aldatzeko («*-oso*», «*-eux*», «*-uos*») eskubidea badute, zilegi al da guretzat «*urrebizi sulfurtsua*», esanahi sendoagoko gure «*-tsu*» atzikiarekin idaztea? Badirudi ezetz: arlotegiak gara hortarako.

Honelako mila alditan, zer forma hartu guk? Gaztelararen menpean geratu behar dugu, ala beste edatuagoko moldeak, egunen batean (landareen izenekin gertatzen den bezala) mundu guzirik forma bakarra izan daitezkeenak hartu?

Beste jakintzetan ez gabiltz horren bateratuak mundu zaballean. Baina, bakoitza bere alorrean, bakoitza bere jakite saillean, batasun hori lortu nahian dabilta jakintsuak.

Gramatikalariek ortografi aldetik «nola» idatzi behar den erabaki baino lehen, botanikalariak, kimikalariak eta jakintza bakoitzeko «jakintsuak», esan behar izango dute «zer» idatzi behar da.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo